

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezkoak diren gauzak proiektua martxan jartzeko hauek izango dira:

Lehenik, zerbitzuak eskeintzeko leku bat beharko genuke, baina pentsatzen dugu lokal bat hartzea gastu handi bat izango zela, horrexegatik, bezeroen enpresan bertan egingo ditugu jarduera guztiak.

Bigarrenik, ordenagailu bat erosi beharko genuke, funtsezko tresna bat delako eta gure lehenengo pausua proiektua martxan jarri ahal izateko, webgune bat izango delako. Webgunea mundura zabalduta ahal izateko, pauso garrantzitsua da eta ondo egiteko eta emaitzak hobeto gordeta izateko ordenagailua beharko genuke. Taldea prest egon behar da proiektuan lan orduak emateko. Webguneak diseinatzeko jakintzak beharko genituzke. Gainera, sormena ideia berriak proposatu eta garatzeko eta salmentarako estrategiak sortzeko ahalmena ere.

Gure zentroan telefono bat izango genuke bezeroek gurekin kontaktuan jarri ahal izateko. Telefono zenbaki hau gure webgunean agertuko litzateke, eta nahi izatekotan WhatsApp-etik mezua bidaliz hitz egin ahalko genuke telefono zenbaki berdinetik. Honetaz aparte, baditugu sare sozialak, gure proiektua jende gehiagora iristeko. Hau izango zen Instagram, Twitter eta Facebook-eko kontuaren izena: @climaticrevolution\_official

Giza baliabideei dagokionez, enpresa sortu dugun 4 bazkidez osatuta egon da. Gu izango gara zerbitzu guztien kudeaketa eta ekoizpena egingo dugunok. Bakoitzak bere funtzio zehatzaizango dituen arren, taldeko lanari garrantzia emango diogu.

Finantza baliabideak, diru iturrien atalean jasotakoak dira.